

LAGUNTZEKO PREST

Rachida (Maroko, 1980). Duela 17 urte iritsi zen zuzenean bere herritik Gipuzkoara. Denborarekin normaltasun osoz sozializatu da. Hurrenez hurren, 14 eta 8 urteko neska eta mutiko baten ama da. Bere jaioterrian bizi den amaren falta sumatzen du.

Oso emakume gogotsua zara. CARITAS GIPUZKOAK antolaturiko hainbat ikastaro egin dituzu.

Bai. Adibidez, Caritasen Sarea Fundazioak – lanaren eta egunerokotasunaren arteko zubi izatea du helburu– antolaturiko baratzezaintzakotan parte hartu nuen Lazkaoko baratzean. Oso oroitzapen ona dut; asko lagundu zidaten. Gaur egun ikastaro soziosanitarioa egiten ari naiz; erizain izan nahiko nuke.

Eta beste ikasketak, zer moduz?

Ondo. DBHko hirugarren mailan nago. Iaz lehen eta bigarren egin nituen. Laster hasiko gara eskola presentzialekin, eta uste dut ekainaren amaieran izango ditudala azterketak. Nire alaba eta semearekin batera ikasten dut. Zientzietakoa naiz!

**NIRE ALABA ETA
SEMEAREKIN BATERA
IKASTEN DUT.
ZIENTZIETAKOA NAIZ!**



Ahal izan duzunean, garbiketan egin izan duzu lan.

Bai. Batez ere tabernetan. Baina pandemiaren ondorioz, bi hilabete daramatzat geldirik. Eta diru-sarrerarik ez izatea benetako arazoa da niretzat. CARITAS GIPUZKOAtik ekonomikoki laguntzen didate alokairuaren ordainketaren zati batekin eta elikagaiak erosi ditzadan. Arazoren bat dudan bakoitzean, Caritaseko lan taldea beti dago ni laguntzeko prest.

Hasi da deseskala.

Bai. Ea lana aurkitzen dudan aurki. Hori da nire ametsa. Hemen bizitza oso garestia da, eta, oso eskertua banago ere, ez dut laguntzak jasotzen jarraitu nahi; asko kostatzen zait eskatzea. Lagunekin ere elkartu nahi dut kafea hartzeko.